

ibaizabal



Maitasun sua

AITOR ARANA

ekin

Jone Muñoz - Leyre Rodriguez
Aixerrota BHI, 14-15


Aurkibidea

Aitor Arana	2
Sarrera	2
<i>Maitasun sua</i>	
• Kokapena	3
• Gaia	4
• Argumentua	4
• Gertakizun nagusiak	4
• Egituraketa	6
• Pertsonaiak	6
• Baliabideak	8
• Iritzia	10
Bibliografia	11
Webgrafia	11

Aitor Arana

Aitor Arana Luzuriaga 1963ko abenduaren 21ean jaio zen Gipuzkoan. Euskal idazlea eta hizkuntzalaria da.

Primaria amaitu ondoren, 17 urterekin literatura idazten hasi zen. Lau urtetan lan egin zuen euskara irakasle bezala eta ondoren bizi zen euskaltegian lan egin zuen.



Urtekin hizkuntzaren jakimena hazi egin zen eta 1987.urtean Narratibazko Bilintx saria irabazi zuen. Horrez gainera beste hainbat sari irabazi zituen, horien artean Liburu gaztea saria.

Umentzat eta gazteentzat liburu asko idatzi ditu: *Azkoarren laguna Loaren bidez*, *Gaueko ortzadarra*, *Herauskorritse*, *Josu Asier eta...* , *Irunberriko sorginak...*

Helduentzako liburuetan, 1994. urtean hainbat ipuin idatzi zituen *Ipuin Lizunak* tituluko obran.

2000.urtean Onan izeneko liburu bilduma idatzi zuen. Bi hauek sexualitatea eta erotismoa zuten gai nagusia. Horrez gainera, Aitor Xut izeneko gay aldizkari batean lan egin zuen.

1999. urtean Euskaltzaindia saria irabazi zuen *Ipuin-entzulea* liburuarekin. Ibaizabal argitaletxea aukeratu zuen 2001ean Aranarentzat *Gailurrean* izeneko liburu bilduma bat sortzeko. Liburua zoramenaz dihardu: gizon batek emakume bat bahitzen du eta mehatxu egiten dio esanez ez duela askatuko ipuin polit bat berari buruz idatzi ezean.

2000. urtean Euskaltzaindia saria irabazi zuen *Historia lazgarria* liburuarekin. Eta BBK-k argitaratu zuen hurrengo urtean, hau da, 2001ean. Beldurrezko istorioa da, hilerrian kokatua.

2001. urtean *Bost ahizpa* idatzi zuen eta 2005ean *Aita-Semeak* idatzi zuen Hiria argitaletxeak argitaratua.

Hainbat liburu bildumaren itzultzailea izan da, adibidez, *Bat Pat* (Mezularia) liburuarena. Eta beraren narrazio garrantzitsu bat erdarera itzuli dute. 1999. urtean esperantora itzuli zuen Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak*.

Graduondoko ikasketak egin ditu euskarari buruz, Zaraitzuko Hiztegia (2001), adibidez.

Sarrera

Maitasun sua Aitor Aranak idatzitako gazteentzako nobela bat da. Lehen edizioa 2013ko urrian izan zen Ibaizabal argitaletxean, Ekin bilduman.

La istorio osoa Garesen (Nafarroa) garatzen da, baina bi istorio kontatzen dira, bakoitza garai desberdin batean. Alde batetik, Ekainen istorioarekin hasten da, 2010ean kokatuta. Liburu bat aurkitu eta gero, kapitulu batean 1725era bidaiatzen da istorioan, baina handik aurrera 1345eko bi juduren istorio bat eta Ekainen istorioa kontatzen dira, tartekatuz. 1345eko istorioan Erriberri izeneko herrira joaten dira, baina horretaz aparte liburu guztia Garesen kokatuta dago.

Ekain mutil nerabe bat da. Gaya da, eta bere arazoa da ez dakiela berak maite duena bera bezalakoa den ala ez. 1345eko istorioa kontatzen duen liburuxka bat aurkitzean: garai hartako Garesen murgilduko da eta bere egoera antzekoan dauden bi mutilen istorioa ezagutuko du, nahi duena egiten lagunduko diona.

Genero narratiboa eta narratzaile pertsonaia du. Bai Ekainek bai Juzek lehenengo pertsonan idazten dute, bere istorioak kontatzen baitituzte, eta horrela agertzen da liburu osoan zehar. Gai asko aipatzen dira, batez ere maitasuna, homosexualitatea, erlijioa, laguntza, errespetua eta onarpena...

Maitasun sua

Kokapena

Bi istorio gertatzen dira, guztiak herri berean, (Gares, Nafarroa) baina bakoitza garai desberdin batean. Ekainen istorioa 2010ean garatzen da, Garesen. Juzeren eta Samuelen istorioa herri berdinean garatzen da, baina 1345ean, eta egoera guztiz desberdina da. Hala ere, azkenean, Erriberri herrira joaten dira.

2010eko istorioa gaur egunekoa da, eta hori justifikatzen duten hainbat elementu agertzen dira: SMSak, belarrietako entzungailuak, agenda elektronikoa... Gainera, *Esne beltza*, *Lady Gaga* edo *Berri txarrak* aipatzen dira, gaurko gaiak direnak.

1345ean Gares herrian juduak eta kristauak zeuden, eta juduen auzoa zegoen. Herriaren inguruan soroak zeuden, jende asko pobrea zen eta nekazari asko zeuden. Horretaz gain, herriak harresi batez inguratuta zegoen eta atariak zeuden. Gainera, bi homosexual elkarrekin egoteagatik jasotako jazarpenak azaltzen dira, gaur egun egiten ez direnak. Horrek guztiak argitzen du bi juduen istorioa beste garai batekoa dela, XIV. mendekoa, hain zuzen.

Gaia

Homosexualitatea eta ezberdina izateagatik izandako zigorrak oinarri dituzten bi istorio dira. Alde batetik, Ekain gay gaztearen bizitza. Beste aldetik, bi judu gayen arteko amodiozko istorioa.

Argumentua

Ekainek ez du historiako ikasgaia gainditu eta oportetan lan bat egin behar du. Baina ez du bakarrik egingo, Montsek, bere adiskide onak, laguntza eskaini dio.

Herriko udaletxean, lehenago inoiz ikusi gabeko liburutxo bat aurkitzen du eta historia aldatzeaz gainera, bere historiako lana primeran egingo du. Horretaz

aparte, duela asko gertatutako amodiozko istorio bat irakurriko du eta horrek berarentzat den erabakirik garrantzitsuena hartzen lagunduko dio.

Gertakizun nagusiak

1. Ekain, istorioaren protagonista, gaya da. Historiako ikasgaia ez du gainditu eta oporretan lan bat egin behar du nota igo ahal izateko.
2. Udaletxean behar dituen liburuak bilatzen dagoenean, liburutegiko apalategia apurtu eta ezkutatuta dauden liburu bat eta gutun zaharrak aurkitzen ditu. Liburuak 1345 urteko mutil judu bikote baten amodiozko istorioa kontatzen du.
3. Ekain eta Montse, bere lagun mina, istorioa irakurtzen hasten dira, bakoitza bere etxean.
4. Hasteko, 1725ean idatzitako ohar bat dago, zeinetan Juan Beltza izeneko eskribau batek bi juduren istorioa itzuli zuela idatzi zuen, aurkitu zuenean.
5. Juduen istorioa hau da:
 - Juze Albofaza Garesko judu gay bat zen, eta Samuel Nahaman izeneko mutila maite zuen. Egun batean, 1345ean, kristauen elizan elkarrekin egon ziren eta sexua izan zuten. Garai horretan sexu bereko erlazioak txarto ikusita zeuden eta horregatik kartzelan zeuden preso.
 - Pedrok, Juzeren lagunak, Juzeri esan zion Erriberrira eramango zituztela han erretzeko. Bera bikotea salbatzeko han egongo zela esan zien, eta ihes egiten lagunduko ziela.
6. Ekain, istorioaren parte bat irakurri ondoren, Montserekin herriko elizara hurbiltzen da, istorioaz hitz egiteko eta juduak egon ziren lekua ikusteko. Orduan Montse eta Ekain sexu harremanak izaten dituzte, Ekain gaya den arren eta Jose Luis maite duen arren. Horregatik, Ekain galduta sentitzen da eta handik joaten da.
7. Samuelen eta Juzeren istorioak jarraitzen du:
 - Pedrok arazoak izan zituen mutikoei laguntzeko eta plana ez zen ondo atera. Bikotea Erriberrira ailegatu zen, han sutan hiltzeko.

- Pedrok joatea lortu zuen, baina ezin zituen handik atera. Horregatik, landare pozoitsua eman zien sutean ez sufritzeko. Istorioaren zati hori, gertatu eta gero Pedrok kontatu zien Mosse Ebeyano errabinoari, eta jokabide zuzena egin zuela esan zion.
8. Azkenean, Ekainek Montserekin hitz egiten du eta azken honek barkamena eskatzen dio, elizan gertatutakoagatik.
 9. Azkenik Jose Luis maite duela esan behar diola ulertzen du. Harengana joaten da, eta bere buruak beti pentsatzen egoten dena esaten dio. Jose Luisek berak ere gustuko duela esaten du, maite duen jakin ez arren. Biak musukatzen dira, oso goxo, zuhaitzen artean.

Egituraketa

Idazleak lehen pertsonan idatzi du istorioa, hau da, Ekainek (protagonista) bere egunerokoan idazten duena da kontakizuna, 2010ean gertatutakoa. Baina beste bi istorio daudenez, narratzailea aldatzen doa. Joan beltza 1725. urtean kokaturiko narratzailea da eta Juze Albofaza, aldiz, 1345. urtean kokaturikoa.

Kapituluen bidez dago antolatuta, egunerokoan bezala. Liburuan, Ekainen eta berak aurkitu duen amodiozko historiaren kontakizunak banatzen dira. Ez dira inoiz elkartzen, Ekainek historiari buruz hitz egiten duenean soilik.

Liburuaren idazleak, protagonistaren egunerokoa dela adierazi izan nahi du.

Pertsonaiak

Ekain Garesen bizi den 16 urteko mutila da; istorio honen protagonista. Oso bakartia da, beti dago bere belarrietako entzungailuekin, *Esne beltza* edo *Berri txarrak* entzuten. Zinema eta film historikoak gustoko ditu.

Murugarrengo muinoan egoten da askotan, hilerrian. Denbora asko pasatzen du idazten bere egunerokoan; ideiak ordenatzeko.

Gaya da eta Jose Luis izeneko bere laguna maite du, baina ez daki nola deklaratu.

Jose Luis 16 urte dituen Ekainen lagun bat da. Ile beltza eta motza du. Kirolari trebea da, igerizalea. Bere familiari nekazaritzan laguntzen dio. Ez da Ekain bezalakoa; honek ez du musika entzutea hainbeste gustuko, eta lagunekin egotea eta diskoteketara joatea gustatzen zaio.

Montse Garesen bizi den 16 urteko neska oso ederra da. Ekainen lagun mina da eta asko maite du. Ez da mutila bezain bakartia eta lagunekin egoten da maiz. Neskak Ekain gustuko du, baina Ekain gaya da eta Jose Luis maite du. Hala ere, harekin egoten saiatzen da.

Juan Beltza 1725eko Garesko eskribau bat da. Urte hartan, uholdeen ondorioz, gordeta zeuden hainbat liburu eta idatzi hondatzen dira. Bere semeak orri sorta berezi bat aurkitzen du, Juzek 1325ean idatzia, eta eskribauak bere alfabetora itzultzen ditu.

Juze Albofaza 1345ko Garesko 17 urteko mutil judu bat da. Garai hartako auzo juduan bizi da eta eskribauak aurkitutako liburuxka idazten du.

Hamabost urterekin Marina izeneko neskak gustuko zuen, baina bera Samuel Nahamanez maitemintzen hasi zen eta sexu harremanak izan zituzten Juzek 16 urte zituenean. Horren ondorioz preso daude Garesen.

Samuel Nahaman 1345eko Garesko gazte judu eta pobre bat da. Auzo juduan bizi da, Juze bezala. Ilehoria eta begi-urdina da; eta gorpuzkera ederra du. Garesko familia judurik behartsuenetako seme bakarra da, eta soroetan lan egin behar du. Txikitan bere adinekoekin egoten zen eta jolasten zuen, baina hamalau hamabost urterekin aldatu zen. Orain bakartia da eta helduekin egoten da, bere adinekoekin egon beharrean. Bera eta Juze sexu delituagatik zigortzen dituzte eta kartzelan sartzen dituzte.

Pedro Etxeberri txikitatik Juzeren laguna da, presondegian Juze eta Samuel zaintzen dituena. Zauriak sendatzen dizkie, haiekin hitz egiten du, eta oso garrantzitsua dena, papera eta idaztekoa ematen dizkie. Bikotea salbatzeko ahalegina egiten du, baina azkenean ez du lortzen.

Mosse Ebeyanon Juze eta Samuelen garaiko errabino zaharra da; hango juduen buruzagi espirituala. Juze estimatzen du, mutilak txikia zeneko hainbat oroitzapen ditu berataz. Presondegian egonda, honek ere laguntzen dio, iraganeko homosexualen egoeraren berri ematen baitio.

Baliabideak

Istoria protagonisten egunerokoetan oinarrituta dago; beraz, haiek bizi izandako esperientziak kontatzen dira nobela osoan zehar. Horren ondorioz, lehenengo pertsonan idatzita dago, eta orainaldian. Lehenaldia erabiltzen da oroitzapenei buruz hitz egiteko, adibidez.

Erabiltzen duen lexikoa nahiko erraza da, gazteentzat pentsatuta baitago. Gainera, gaur eguneko adierazmolde konkretu batzuk erabiltzen dira askotan Ekainen istorioan. Horren adibidea pasarte hau da:

–Mekasuen, zer bero! –esan du gero, inguruko galsoroetara begira–. Geroago, herrira itzultzean, izozki bat hartzera gonbidatuko nauzu, bero honekin hilerriko aldapa luzea igoarazi didazulako. Ale! (15)

Mekatxis... –esan eta lurrera begiratu dut–. (18)

Hainbat gai kontuan hartzen dira, adibidez, maitasuna, homosexualitatea eta nerabeen arazoak; pasarte honetan bezala:

–Bai, erraz esaten da hori, baina hamasei urteko mutilei ez zaie gustatzen gayak diren inork galdetzerik. (17)

–Izan ere, maite duzu, ezta? –galdegin dit lagunak–. Ez zaudela ziur dirudi batzuetan. (17)

Erlijioa ere aipatzen da, kristau eliza batean garatutako pasarte honetan ikus daitekeenez:

–Hemen ikusten bagaituzte... –kexatu zen Samuel, kezkatu–. Gu juduak gara...

Ez dira egiten deskribapen oso konketuak, batez ere fisikoak. Aldiz, pertsonaiek zer egiten duten kontatzean, haiei buruzko informazioa lortzen da.

Deskribapen fisikoa duen pasarte bat hau da:

Ile beltza dauka, nik ez daukat oso ile luzea, baina Jose Luisek nirea baino dezente motzagoa dauka. Normalean desorraztuta edukitzen du. (72)

Pertsonaiak zer egiten duten aipatzean ere, haien izateko modua jakiten da, pasarte honetan bezala, non jakin daiteke Samuel mutiko bakartia dela:

Benetan esan zitekeen ez zuela gehiago gurekin, betiko lagunekin, egon nahi, eta nahiago zuela jende helduarekin edo zaharrekin egon otoitzean. Edo, bestela, bakarrik. (57)

Elkarrizketa asko erabiltzen da, pertsonaiak haien artean informazioa emateko:

—Ez dakit, jauna.

—Ezetz? —irribarre egin zuen—. Ziur nagok txori izen asko dakizkiala. Esan zerbait. (51)

Baita ere, pertsonaien pentsamenduak asko agertzen dira:

Batetik, amari gaya naizela esan behar diot behingoz betiko. Nire ama da, eta horrenbesteko konfiantza merezi du... (12)

Iritzia

Maitasun sua eleberria oso erraz ulertu ahal den liburua iruditu zaigu. Interesgarria eta guztiz entretenigarria den istorioa da.

Homosexualitateari buruzko horrelako libururik ez dugu inoiz irakurri. Homosexualitatea ez dugu ondo ezagutzen, hau da, ez gu ezta gure inguruko inor ez da gaya eta liburua pertsona hauek armairutik atera baino lehen nola sentitzen diren ulertzen lagundu digu; baita zer pasatu behar duten beraien gustuagatik txarto tratatzen dituzten pertsonak ulertzen ere. Gainera, Juzeren eta Samuelen amodiozko istorioa oso polita iruditu zaigu. Errealia izan zela dirudi eta horren ondorioz, garai hartako homosexualen egoera eta nola jazartzen zituzten ezagutzen dugu orain, lehen ezagutzen ez genuena.

Homosexualen jazarpena oraindik gure gizartean badago, ez hainbeste Juze eta Samuelen istorioan bezala, baina uste dugu haien kontra oraindik jendea dagoela, eta ez litzateke egon behar.

Liburuko istoriari buruz bi iritzi oso desberdin ditugu. Alde batetik, 17 urteko bi mutilen istorioak asko hunkitu gaitu, batez ere amaieran. Ez genuen horrelakorik espero eta horrek liburua interesgarriagoa egiten du, itxaroten egon garelako amaieran ea hiltzen dituzten ala ez jakiteko. Beste alde batetik, Ekainen eta Jose Luisen istorioaren amaiera nahiko ohikoa da. Liburuan zehar azaltzen da nola Ekainek ez dakiela nola esan Jose Luisi berarekin maiteminduta dagoela, eta 12 urtetik gorako liburu batez hitz egiten gaudenez, espero izatekoa zen ondo amaitzea; gainera, Ekainek amaiera hori merezi du. Horregatik Samuel eta Juzeren istorioaren misterioa nahiago dugu.

Ekainekin identifikatuta sentitzen gara. Gu eta gure adineko gazte gehienak bere arazoa dugula uste dugu, hau da, norbaitekin maiteminduta egon garela noizbait edo norbait gustuko izan dugula eta ez genekien ondo berak ere gustuko gintuen.

Obra hezigarria dela pentsatzen dugu, gazteei lagundu ahal die, haien antzeko arazoak dituzten pertsonak daudelako. Gainera, norbait Ekainen egoeran badago liburu honen bidez laguntza jaso dezake. Horrez gainera, istorio honek

azaltzen du zelako egoeran zeuden gizartearen ustez desberdinak ziren pertsonak (homozexualak) XIV. mendean. Eta homozexualak guztiok bezala errespetatuak izan behar direla ulertzea eragiten du. Zure sexu berekoak gustuko izateagatik ez zara gutxiago besteekin konparatuz, zure gustuak kontuan hartuz errespetatu behar zaituzte. Liburu honek hori erakusten du, eta balore oso garrantzitsua dela uste dugu.

Laburbilduta, nobela interesgarria, erraz ulertzekoa, entretenigarria eta hezigarria iruditu zaigu. Gure adineko edo gu baino urte gutxiagokoak diren gazteei gomendatzen diegu liburu hau.

Bibliografia

Maitasun sua, Aitor Arana. Ibaizabal.

Webgrafia

- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>
- <http://www.euskomedia.org/aunamendi/18623>
- http://eu.wikipedia.org/wiki/Aitor_Arana
- <http://www.galtzagorri.org/euskara/idazleak/aitor-arana-luzuriaga>
- http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp
- <http://www.galtzagorri.org/liburu-gaztea/fitx/dokumentuak/maitasun-sua.pdf>
- <https://www.ibaizabal.com/es/nuestros-productos/literatura/literatura-juvenil/a-partir-de-12-anos/maitasun-sua>
- <http://xuxen.eus/#>